

## Euskal Izendegiaz

Igaz, uda denboran, euskal izendegi bat argitaratzeko gogoia erakutsi zidan Iruñeko diru-etxe batek; lan hortaz ni arduratzeko eskatu ere bai. Egia esan, ez nion orduan aurrerapen haundirik eman. Izan ere, uste gabea hartu ninduen; eta egitekotan, lan oinarritua egin beharko litzakela, esan nion; gure lege gizonen aurrean indarra izateko moduko zerbait. Udazkenean, berriz ere, eskabide bera.

Gogoan nuen nik Euskaltzaindiak noizbait jenden izenen batzorde informal bat izendatu zuena, eta hain zuzen, barne nintzala. Hala adierazi nion neregana zetorren ordezkariari. Berak ez zuen hortan eragozpenik ikusi; Euskaltzaindiaren babesean egindako lana egokiago iduritu zitzaion bere helbururako, eta nere esku utzi zuen lana.

Hori da, gutxi gora behera, Abenduko euskaltzain osoen goizko batzarrean nik agertu nuena. Diru aldetik, alegia, ez zuela Euskaltzaindiak buru-hausterik izango; eta euskal idazkietan gutxitan gertatzen dena, hogeit hamar milatik gorako zabalkundea izango lukela. Geurok banatzeko mordo bat eskatu genezake, beste alde. Nik uste Euskaltzaindiaren izena ezagutarazteko bide egokia izango litzakela. Ongi iduritu zitzaion euskaltzainkide guzietan.

Aurtengo lanen eta batzarre guzien egitaraua bai geneharren orduan esku tartean, programazioa alegia, era hontara jaso zuen agerian: *personen izenen lista, dokumentaturik, hornitzea eta agertzea*. Gaia aurtengo eginkizunetan sartua dela, esan nahi du bakarrik. Babesaren orde, zabalkunde haundiko bidean ezartzen bai dugu bere izena.

## Beharra

Euskal izendegi oinarritu baten behar gorrian arkitzen gera. Izendegiak baditugu; *Joanategy*, lehenik (1876); eta *Arana-Eleizalde* jaunen *Ixendegia* (1897). *Euskaltzaindiak onartutako Euskal Izenlerroa* da azken aldi hontan gehienik baliatu izan dena (Bilbao, 1966). Retanak argitaratua. Geroztik, multikopiaz egindako beste zenbait izen lerrokada ere ikusi dugu. Baina, gertatzen zaiguna larria da: izen asko, eta lege gizonen aurrean indarririk ez.

1966-ko izenlerroak arrera ona ukan zuen. Geroztik sortu zaizkigunak ez digute lege gizonen aurrean mesederik egin. Euskaltzaindiko paperren segurtamena bera zalantzan dago epaile askorentzat. Ez Naparrotik bakarrik; Bizkaia ta Gipuzkoatik, Iruñeko «Príncipe de Viana» elkargora eskatzen dizkigute orai jende izenen segurtamena.

Gaurko lege giroa ez da izendegiari buruz nahi genduken bezain idekia ta zabala, eta ez dago gure eskuan hori aldatzea. Legea ezagutu beharrean arkitzen gera, uzten dituen zirritu meharrak gure alde baliatzekotan. Ankak lurrean ditugula ibili beharko dugu. 1958-ko aldaketa bati lotzen dira gehienik: *onartzen direla, alegia, atzerritarren eta lekuko izenak, erderazko itzulpenik ez badute behintzat. Erderazko itzulpendunak gazteleiaz ezarriko omen dira. Entzute txarreko eta andra-gizon diren ezagutzeko nahasmendua sortzen dutenak ere ezin dira sartu* (1).

Erderaren sokatiran dantzatzen gaitu legeak eta atzerritarren maila berean sartuak gera. Hitzez behintzat. Egunoroko jokabidean ez da berdin gertatzen. Kenya edo japonar batek bere jatorrizko izena eman nahi badio seme alabari erdal itzulpenik ez duela aitortzea aski du. Aste hontan bertan Iruñen sortutako haur baten izena dut begien aurrean: *Najsua Nimri Urriticoetxea*, Karam eta Magdalenarena. Egunkariak ez du agertzen neskatilla hala mutila den, eta

---

(1) *Ley de Reforma del Registro Civil*. Art. 192.—Se permiten los nombres extranjeros o regionales. Si tienen traducción al castellano, sólo se consignarán en esta lengua. Son nombres prohibidos por extravagantes, los que por sí o en combinación con los apellidos, resulten contrarios al decoro de la persona.

Se prohíbe también cualquier nombre que haga confusa la designación, por su pronunciación u ortografía exótica o por inducir en su conjunto error sobre el sexo. (B. O. 8-6-1958; n. 296. Nov. Título V).

ez da gure artean inor hori asma lezakenik. Atzerritarra du aita. Euskaldunon eragozpenak urrutiago dijoaz: itzulpenik ez badu, beste gauza asko behar ditu bizidunen liburuan sudurrak sartzeko. Hona hemen lege gizonen egiten dituzten galdera nagusiak:

- 1) Jende izena alda? Emakume hala gizakientzat erabiltzen da?
- 2) Erderazko itzulpenik bai aldu? (*traducción usual*, diote orai). Edo kidekorik.
- 3) Antziñako izena balitz, nun arkitu laiken. Nortasun bere-xiko edo kondairan garrantzia izan duen norbaitengatik sarrera ematea komeni ote laiken, eta abar.

Gauzak hala direla, ez nuke nik asmakizun hutseko hitzik sartu nahi izendegian. Eta herriak erabiltzen dituen zorbait ere bigarren mailan, bereix, ezarri nezazke ez badira oraikoz onartzen: Ixendegiko *Deñe*, *Igone*, *Jasone* ta *Alazne*, esate baterako. Hoietan ere badira zuzendu beharrak: *Garbñe*, erderazko Purificación bezala ematen da Ixendegian. Gaurko egunean *Garbiñe* (Inmaculada), *Garbikunde* (Purificación) eta *Sorkunde* (Concepción), ongi mugatuak dira.

Pundu honek badu bere garrantzia: itzulpena duten izenak legez duten eragozpenengatik alde batera uztean, lege gizonen aurrean indarra hartzen du izendegiak. Denbora berean, herriari hain atsegin zaizkion hitzak ezin dira izendegi batean ixildu. Bi zati izango ditu beraz: legezko izenena, eta gaurkoz on-hartzen ez diren herrikoiena.

Antziñako idazkitan arkitzen ditugun hitz jatorrak jasotzen alegindu nahi nuke. Izenaren ondoan iturrien berri emango dut, eta zenbait argibide. Hauzian onartutakoak, *Unai*, *Amaia* eta abar, erabakiaren berri ematea nahiko dute. Halare, paper zaharretako izen guziak ez dira gaur izendegian sartzeko on. Egos-gogor eta trakets gerta laike. Hobe izango da, noski, girotuenak eta belarrientzat atsegin zaizkiguneren errezkadak bakarrik sartzea. Urte batzuen buruan ugarituz joan laike; aberastuz joango den izendegi baten hasiera izango litzake.

Lau bost aldetara esaten diren izenak ere mugatu beharrean arkitzen gera: *Ussoa*, *Usoa*, *Uxoa*, *Usua*, *Usue*, *Uxue*, *Ujué*. Gehie-

nik zabalduak diren bi edo hiruekin geldituko gera. *Usoa* eta *Usue*, guretzat. Hartu bezate Ujué, erdal kutsukoak.

Zailtasun berexia idazkera aldetik etorriko zaigu: *Eneriz*, hala *Eneritz?* *Iziar*, hala *Itziar?* *Enekoiz*, hala *Enekoitz?* Hizkuntzalariekin hartu-emanetan egoteko asmoa ba dut; eta azken orduan Euskaltzaindiari berari erabaki bat eskatu behar izatea ere gerta laike.

Euskalerriko Andra Mari guzien izenak ere ezin ditugu bat-batean denak sartu.

Era askotako mugak ditu lanak. Ahal dena egingo dugu, ezin delarik egin nahi dena.

1972. Otsailaren 25ean.

J. M. Satrustegi

## GIZA EMAKUMEEN IZENDEGIA

Igaz, Abenduaren 30-eko Euskaltzaindiaren urteko azken batzarrean, aurtengo lan eta gora-beheren egitarauaz mintzatu ginen eta, *jende izenen bilduma* ginuen begien aurrean. Izan ere, goizeko batzarre denboran euskal izenen agiri bila, ez zen atertu jendea. *Tubal* euskal izen bezala egiztatuko zuen paperra eskatzen zuen batek. *Ibai* ezarri nahi zion bere haurrari beste guraso batek. Hori dela ta, behar beharrezkoa ikusten genuen denok giza-emakumeen izendegi berria.

Lanak ba zituen bere oztopo antzeko koxkak, eta beste edozer baino lehenago, txosten txiki baten bidez, nere asmoa Euskaltzaindiari agertu nahi izan nion. Otsaileko batzarrean, hain zuzen, eman nuen nere iritzia. Izendegi oinarrিতua izan beharko zuela esaten denok batera gentozen. «*Izendegi hau sailka egingo da, zion otsailaren 25-eko erabakiak; lehenengo izendegi ttipia, historikoak, santu izendegikoak eta Andra Mariak*».

Neguaren ondotik uda, eta ereintza egin delarik uzta jasotzeko aroa, udazkena. Urtearen buruan egindako lanaren kontu ematera gatoz gaur gu ere.